



Nazioarteko profesionalak Oñatiko Unibertsitatean eta Arantzazuko santutegian

Goi-mailako prestakuntzadun hamar profesionalak hartu zuten parte Gipuzkoa Talentek antolaturiko jarduera soziokulturalean.

Joan den azaroaren 10ean, goi-mailako prestakuntzadun hamar profesionalak Oñatiko paraje ederrez eta inguruez gozatu zuten, Debagoienan, Donostia eta Gasteiz artean. Profesionalok hainbat herrialdetakoak ziren, esaterako, Dominikar Errepublika, Txile, Mexiko eta Errusiakoak, bai eta Estatukoak ere, Albacetekoak, kasu, eta beren lan-jarduera garatzen dute, besteak beste, BCBL, CAF, Ikor eta Polymat enpresetan.

Goizean, José Antonio Azpiazu historialariarekin batera, udalerriko eraikinik garrantzitsuena bisitatu zuten: Sancti Spiritus Unibertsitatea. 1540an eraikia, Estatuko zaharrenetakoa da, bai eta euskal arkitektura errenazentistaren adibiderik onenetakoa ere. Ondoren, ULMAren zuzendari ohi José Luis Madinagoitia ezagutu zuten, zeinak bertatik bertara azaldu zien kooperatiba-eredua, eskualde osoan hedatu baino hedatuagoa.

Eguerdian, profesionalak Arantzazuko santutegian izan ziren, duela 500 urte eraikian, non eraikuntzaren arkitektura berezia miretsi zuten. Ondoren, hango ostatu ospetsuan bazkaldu zuten.